

8. Funtsezko jarduerak:



Funtsezko jarduerak, edozein proiektuk funtzionatzeko eta arrakasta izateko behar diren gauzarik garrantzitsuenak dira. Baina enpresa mota guztiek ez dituzte jarduera berdinak, gure enpresaren kasuan, hurrengo hauek izango dira beharrezkoenak:

1) Zerbitzua emateko jarduerak:

- Gure bazkideen eta gure bezeroen arteko harremanak egiten ditugu, bitartekari lanak eskainiz (garraiobideen txartelen salmentan, ostatuetako gela erreserban edo zerbitzu osagarrien erreserban: txangoak, jarduerak etab). Honela, bezeroei prozesu azkar bat izatea ahalbidetuko diegu.
- Bidai osoak planifikatzen ditugu, bezero bakoitzaren lehentasunak eta beharrak kontuan izanik. Hau da, pakete turistikoak prestatzen ditugu; garraioa, ostalua etab kontuan izanik.
- Estatuko zein atzerriko beste bidaia-agentzia batzuen ordezkari gisa jarduten dugu. Horrela, gure eskaintza zabalagoa izatea lortzen dugu.

2) Arazoak konpontzea: gure enpresan helburu nagusia, gure zerbitzua hartzen dutenen arazoak konpontzea da. Arazo hauek batez ere, ikasleek eta irakasleek izaten dituzte eta hauek ikasbidaia antolatzean hasten direnean, sortzen dira. Adibidez, ikasle batzuk beraien gurasoen laguntzarekin hotelak eta garraioak erreserbatzen hasten dira, baina hau egitean toki gutxi eta prezio oso garestiak daude. Prozesu guzti hau ikasbidaia antolatzen dituen enpresa batekin egingo balute berriz, prezio merkeagoak eta aseguratuak izango dituzte, gure moduko enpresek hotelekin harremanak izaten baditugu.

3) Plataforma edo sareko jarduerak: gure enpresaren kasuan, sareko jarduerak ezinbestekoak direla pentsatzen dugu; izan ere, gazte askok kontsumitzen dituzte sare sozialak eta beraiek dira gure bezero garrantzitsuenak. Hau da, gure bezero nagusiak sare sozialetan badaude ezinbestekoa da gure informazioa bertan jartzea. Honetarako hurrengo egitea pentsatu dugu:

- Webgunea eta sare sozialak aktibo mantentzea informazioa gure bezeroei eskuragarri jartzeko eta erreserbak kudeatzeko. Batez ere, pertsona gazteei eta ikasleei informazio hau iristeko.
- Ikastetxeekin eta gurasoekin harreman estua izateko, telefono zenbaki bat eta korreoa izango dugu.

- Marketing-a eta publizitatea ere egingo dugu gure sare sozialen bitartez eta Webgunean, antolatzen ditugun ikasbidaiak pertsona gehiagok ezagutarazteko.